



INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO KULTURA BATERANTZ

2025

*Ikus-entzunezkoen
eta arte eszenikoen
sektoreetan*



Aurkezpena

Txosten honetan partekatzen ditugu **Garazi Arregi Leon-ek** egindako “Indarkeriarik gabeko kultura: Ikus-entzunezkoetan eta arte eszenikoetan **indarkeria matxistak prebenitzeko eta horiei aurre egiteko** EAE-ko protokoloaren bidean” ikerketa lanaren **emaitza eta testigantza batzuk**.

Ikerketa eta diagnosi hori **EHUren** eta **EiTBren** Multimedia Komunikazioko Masterraren MAL baten esparruan osatu da, **Tania Arriaga** eta **Itxaso del Castillo-ren** tutoretzapean. **EHUko ADI Ikerketa Taldea, (H)emen Elkarte**a eta **EAB Euskal Aktoreen Batasunaren** arteko kolaborazioari esker gauzatu da, **KSigune** (Euskadiko Kultura- eta Sormen-Industrien) klusterraren laguntzarekin (bere *Konexioak* programaren laguntzarekin, goi-mailako hezkuntza eta kultura- eta sormen-erakundeen arteko lankidetzaren bultzatzen duena).

(H)emen-ek eta EAB-k bultzatu dute ikerketa, egungo egoeraren diagnostiko bat lortzeko (Euskal Herriko arte eszenikoen eta ikus-entzunezkoen sektore profesionaletan dagoen indarkeriaren prebalentziari eta pertzepzioari buruzkoa). Diagnostiko horretatik abiatuta, elkarte hauek **protokolo bat sortzea bultzatzen dute**, Euskadiko sektore horien eremu profesionalean **indarkeria matxistei heltzeko eta horiei aurre egiteko**, euskal sorkuntza eszenikoan eta ikus-entzunezkoetan inplikaturik dauden enpresen, erakunde eta profesionalen elkarteekin lankidetzan.

Proiektu orokorrak **Emakunde Institutuaren babesa** du eta 2025ean burutu da. Hori horrela, **protokoloa 2026ko hasieran ateratzea eta ezarri ahal izatea da helburua**. Horrekin batera, ekoizpen eszeniko eta ikus-entzunezkoetan diharduten Euskadiko enpresa eta erakunde guztietan nahitaez bete beharrekoa izatea ere lortu nahi da.

(H)emen

EAB Euskal Aktoreen Batasuna

EMAKUNDE
EMAKUNDE EUSKAL TRAGU
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

EHU

ksigune
Higher Education & Research for CCIs

Zergatik behar dugu hau?

Kultura eta artea gizartearen ispilu dira, baina baita eraldaketarako espazioak ere.

Hala ere, datuek gure sektorea genero desberdintasunetatik eta gizartean errotutako botere gehiegikerietatik salbu ez dagoela erakusten digute.


Lan honek EAEko errealitatea aztertzen du, helburu argi batekin: **sektoreko lehen protokoloa diseinatzeko ezinbesteko oinarria ezartzea**. Ezagutu gabe, ezin baita eraldatu.

Noren ahotsa jaso dugu?

Sektoreko profesionalen bizipen errealetatik abiatutako analisia:

- Euskal Herriko **90 profesionalen** esperientziak jaso dira inkesta bidez (ikus-entzunezkoen zein arte eszenikoen sektoreetako profesionalak).
- **5 elkarrizketa sakon** egin dira profil ezberdinekin (soinua, ekoizpena, kamera, interpretazioa, estilismoa).
- **Focus Group-a**. Inkestan parte hartutako hainbat profesionalekin saioa egin da ideiak eta ikuspegiak trukatzeko.

Diagnosian adierazitako indarkeria guztiak **arte eszenikoen eta ikus-entzunezkoen sektoreetan** gertatu dira. Aipatutako indarkeria-kasuak ez dira soilik **norberak bizitakoak; lekuko gisa ikusitakoak zein biktimek konfiantzan kontatutakoak** ere biltzen dira.




Emitzen adierazgarritasuna eta baliozkotasuna

Gure lurraldeko arte eszenikoen eta ikus-entzunezkoen sektore profesionalen tamaina eta bertan lan egiten duten emakumeen kopurua kontuan hartuta, erantzun-tasa handia izan du inkestak eta, beraz, **adierazgarriak dira lortutako datuak.**

Emitzek egiturazko arazo baten argazkia ematen dute.

Metodologia-oharrak:

- Inkestatuek aipatzen dituzten indarkeriek hiru jatorri izan ditzakete: **eurek zuzenean bizitakoak, ikusita egiaztatu dituztenak, edo biktimak konfiantzaz haiei kontatuta jasotakoak.**
- Inkesta galdera guztiei erantzun gabe osatu zitekeen, eta erantzun anitzeko galderak zeuden. Beraz, galdera bakoitzeko erantzun kopurua ez da beti 90 izan. Atal bakoitzeko erantzunen ehuneko absolutuak eskaintzen dira.



Diagnostikoa: sektorearen erradiografia


Hemen biltzen dira ikerketaren daturik esanguratsuenak. Zenbakiak agerian uzten dute **indarkeria ez dela anekdotikoa.**

1

Segurtasun falta: sentsazio orokorra

Profesionalek ez dute beren lantokia leku segurutzat hartzen. Segurtasuna ez da soilik arrisku fisiko eza; **epaitua izateko beldurrik gabe lan egitea** eta **hierarkia toxikorik ez egotea** ere suposatzen du.

Inkestatuen **%57,8k** adierazi du
EZ duela segurtasunik sentitzen lan-sektorean.



"Segurtasuna beldurrik gabe
eta modu naturalean harremanak
gertatu daitezkeen leku bat da"



2


Indarkeria, errealitate bat

Indarkeria matxista
oso hedatuta dago sektorean.

%43,3k indarkeria matxista **jasan** du.

%60k indarkeria kasuak **ikusi** ditu.

%65,5ari biktimak kasuren bat **kontatu** dio.





*“Gaztea eta hasi-berria naizelako
diskriminazioa eta gutxiespen
handia jaso izan dut, baina uste dut
ez dela bakarrik gaztea naizelako.
Uste dut generoak ere
zerikusia daukala hor”*

3

Ikusezina baina errealak: indarkeria psikologikoa


Indarkeria fisikoa edo sexuala existitzen diren arren, sektorean gehien nagusitzen dena indarkeria psikologikoa da (irainak, gutxiespenak, presioa, manipulazioa). Askotan "laneko tentsio" gisa normalizatzen da, baina eragin sakona du.

Indarkeria jasan dutenen artean, **%58,97k** generoagatiko **indarkeria psikologikoa** pairatu du.

Indarkeria sexuala (%35,9) eta **lan-esplotazioa** (%30,7) ere oso presente daude.

Zein indarkeria mota jasan duzu?	Guztira	%
Psikologikoa generoagatik	23	%58,97
Sexuala generoagatik	14	%35,9
Lan-esplotazioa generoagatik	12	%30,7

*“Begiradak eta espazio
pertsonalaren inbasioa”*




4

Boterea: indarkeriaren giltzarria

Datu hau diagnostikoaren gakoetako bat da. Indarkeria estuki lotuta dago hierarkiarekin eta botere-abusuarekin.

Indarkeria jasan dutenen artean, **%87,18k** esan du erasotzailea **hierarkiaz edo botereaz baliatu** den norbait izan dela.





*"Denok dakigu pertsona bat
botere-abusua egiten ari dela...
baina zuk baino botere
handiagoa dauka.
Orduan ez diozu ezer esaten"
(Emakumea, sonidista)*

5


Arrisku guneak: non gertatzen da?

Lana eta bizitza pertsonalaren arteko mugak lausoak dira sektorean. Indarkeria une zehatz batzuetan pilatzen da.


Entseguetan: intentsitate emozional handiko uneak.

Aisialdian: laneko harremanetatik eratorritako afariak, jaialdiak eta promozio ekitaldiak.

Sail teknikoetan eta artistikoetan: gizonen presentzia nagusia da gune hauetan; bertako dinamikek eta hierarkiek jarrera matxistak normalizatzea errazten dute.



*“Espazio seguruenak beti
izan ohi dira makillajea
eta jantzitegia.
Gure amatxoak bezala dira”
(Emakumea, aktorea)*



Erantzuna: isiltasuna eta babesa

Zergatik ez da salatzen? Indarkeriaren aurrean, erreakzio ohikoena izaten da isiltasuna edo gertatutakoa ingurukoekin modu informalean partekatzea. Oso salaketa formal gutxi izan ohi dira (soilik %5).


Zergatik gertatzen da hau?

Inkestatuen ustez:

- **Eraitza eraginkorren faltagatik (%46):** Ez da ezer aldatzen.
- **Beldurragatik (%38):** Errepresalien beldurra, "zerrenda beltzen" beldurra.

Tresna falta nabaria da:

- Inkestatuen **%91k** uste du gaur egun **ez dagoela tresna eraginkorrik** sektorean indarkeria matxistari aurre egiteko.




Konponbidea: protokoloa

Sektoreak aho batez eskatzen du aldaketa.
Inkestatuen **%93,3k** uste du protokolo baten sorkuntza
ezinbestekoa dela.

Zer eskatu diote profesionalek protokoloari?

- **Prebentzio estrukturala (%94):** arazoa sustraitik lantzea, ez soilik kasuak kudeatzea.
- **Lan-baldintzak argitzea (%71):** prekarietateak eta lausotasunak abusua errazten dutelako.
- **Arreta zerbitzua (%70):** salaketen aurrean erantzun profesiona emango duen zerbitzua.
- **Intimitate koordinatzailea (%61):** figura hau bermatzea eszena delikatuetan.
- **Erreparazioa eta zigorra:** biktimari laguntza integrala ematea (%83) eta erasotzailearentzat zigor errealak egotea (%82).



Ondorio nagusiak

Ikerketak **lau ondorio nagusi** utzi ditu.

Ez dira kasu isolatuak.

Indarkeria matxista ez da kasu isolatu batzuen kontua; sektorearen dinamiketan (hierarkia zurrunik, behin-behinekotasuna) errotuta dago.





Boterea, indarkeriaren oinarri.

Eraso gehienak botere-desorekatik datoz.

Lankideen artean estatusak edo pribilegioak ematen duen indarrak (protagonismoak, adibidez) abusua ahalbidetzen du.

Mendekotasun horrek eta lanik gabe geratzeko beldurrak isiltasuna inposatzen dute.

Segurtasuna birpentsatu behar da.

Profesionalentzat segurtasuna ez da soilik kalte fisikorik ez jasatea; epaitua izateko beldurrik gabe lan egitea eta hierarkia toxikorik ez egotea ere suposatzen du.



Protokoloa premiatzkoa da.

Gaur egungo tresnak ez dira nahikoak. Sektorea prest dago espezifikoa eta derrigorrezkoa izango den tresna berri bat onartzeko; betiere prebentzioan, arretan eta erreparazioan oinarrituko dena.



LANTALDEA ETA KREDITUAK

“Indarkeria matxistarik gabeko kultura baterantz. Ikus-entzunezko eta arte eszenikoetako sektoreetan” txosten laburtu honetaz:

- **Ikerketaren emaitzen aukeratzea, testuaren moldaketa eta maketazioa:** Izaro Altuna Ibarguren
- **Gaztelerazko itzulpena eta gainbegiratze orokorra:** Rakel Ezpeleta
- **Irudiak eta grafikoak:** Izaro Altuna Ibarguren

Txosten hau “Indarkeriarik gabeko kultura: Ikus-entzunezkoetan eta arte eszenikoetan indarkeria matxistak prebenitzeko eta horiei aurre egiteko protokoloaren bidean” ikerketa lanean oinarrituta dago. G. Arregik egindako ikerketa zabal honen emaitza guztiak irakurri ahal izateko, esteka honetara jo:

https://hemen.eus/wp-content/uploads/2025/12/Indarkeriari-k-gabeko-kultura-baterantz_Garazi-Arregi-Leon.pdf

- **Ikerketaren egilea:** Garazi Arregi Leon.
- **Tutore akademikoak:** Tania Arriaga eta Itxaso del Castillo (UPV/EHUko ADI Ikerketa Taldearen Ko-IP).
- **Inkestak eratzeko laguntzaileak:** Eguzkiñe Aranzibia eta Rakel Ezpeleta

Txosten laburtu hau, ikerketa eta diagnosia proiektu beraren baitan daude: Ikus-entzunezkoetan eta arte eszenikoetan indarkeria matxistak prebenitzeko eta horiei aurre egiteko protokoloa sortzeko proiektua.

- **Proiektuaren koordinazioa:** Rakel Ezpeleta.
- **Erakunde bultzatzaileak:**
 - **(H)emen Elkartea:** Kristina Zorita, Izaskun Arandia, Sara Mauleón, Eguzkiñe Aranzibia....
 - **EAB (Euskal Aktoreen Batasuna):** Alizia Otxoa, Rakel Ezpeleta, Marijo González, Nazaret Froufe, Uzuri Guridi....
- **Babesleak eta Laguntzaileak:**
 - **Emakunde:** Miren Elgarresta, Noemi Alangua, Noemi Ostolaza...
 - **KSigune (Konexioak):** Ruth Mayoral, Sara Azurza, Lorena Vega.

(H)emen

EAB Euskal Aktoreen Batasuna

EMAKUNDE
INSTITUCIÓN VASCA FEMENINO
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

EHU

ksigune
Higher Education & Research for CCIs